EUZKEL-ATALA

GERNIKA

EZKONTZA

Datorren illearen 2'an Goikuak lagun, ezkonduko dira geure adiskide maite dan Zametza eta Artzenegi't. Ander eta Kortezubiko'ko "Terlitz" basetxeko neskatille Uriarte eta Kortabitarte't. Iñake.

Aurretiaz geure zorion bero-beroa.

ERIOTZA

ERIOTZA

Ruiz Larrinaga't. Domeke andere ezaguna, egubastenian il zan.

Il-obiratze eta otoiketak lagun askogaz ikusi zirean.

Artu bedi bere seme Axangiz't. Iñaki eta Ereño Aba kaputxiñoak eta bere neba Ruiz Larrinaga't. Jon eta Augusto Pantzekatarrak Abak geure tamal agurrik zintzoena.

LENENGO JAUNARTZA

Omaetxebarria eta Idoyaga't. Juli mutikotxuak igaro zan illearen 29'an lenengoz Jaunartu eban Eibarko eleiz nagozian.

Euskeraz polito-polito idatziriko gomutakiak banandu ditue.

Aolantxe beti, nun-nai zuen zintzotasuna erakutsi.

PELOTA

Datorren igande ta arratsaldian jokatuko diran partiduak oneexek izango dira: Igandian: Zabala eta Txapasta eta Ubilla eta Artazo.

Astelenian: Peru eta Atano bigarrena eta Txikuri eta Uribe.

BIURTU DIRA

Uri nagosietatik ezkon-ibillalditxoa eginda ,emen agurtau doguz Artzanegi Narziz eta Sarrikolea Bakarne senar-emazte barriak.

UNDURRAGA ABA

Karmeldarren ikastolako txaduntxura sermogiñan etorrita, emen izan gendun igaro zan astian Undurraga't. Eukeni Miren Blotzaren Seme txonizlari gurgarria eta aoiskide ona.

Lanean ez nekatzekoa da-ta, geure eleiz nagosian be, igandeko amaiketerdietako jaupan sermoi ikusgarri bat jaurti euskun Txadonetik urtekeran geure adiskide batek iñoana: ori dok sermolari mamintsua, "jotera" ekin jotzak gero berak, utsik be egin barik.

Eta onantxe da: :Undurraga Aba'ren txonitzak, ezer galtzekorik eztauke.

BELU-MENDU.

GETXO - NEGURI

ASTEKO GORA-BERAK

Igaro dan aste onetan ezta gauza andirik jazon erri onetan. Orain arte be esanta nagotzue erri au oso baketsua dala ta gixtian egoten da zer esan andi andirik. Gainera erri anoia, polita, ta ederra dala, ayer bat naiko, sakabanatuta dago, ba lau ero andi dira baña bata-bestia gandik naiko urrintxu egiten dira. Orregaitik ba, emen Neguri auzoan gauza gitxi jakiten dogue beste auzoetan jazoten diranak beintzat Beste auzoetako izparrak emoteko or dauzaguz idazlagun batzuk baña, orrek ixil dagoz aspaldi onetan, ta au dala ta emen dagoz auzo onetako euskeldun gizajoak ezer jakin barik.

Erriko gauzarik ezpadakigu be, kanpotik etorri yakuz barri batzuk, eta benetan adigarriak geuk lez, maite dituzenantzat, geure euskera, ea oitura zar garbiak, ori da, geure lur zati maite au.

Oingo irakurle maiteok jakitun egongo zarie, baña baten batzuk ondiño ezpadaki gue, oin noa argitalduten neure poza zegitik dan. Aor doa ba:

Bilbo'n irasi (fundau) da bazkun bat "Pizkundia" izenagaz, eta bazkun onen arteria izango da geure aberri onen aldean egitia, euskerea goraldu, ta euskotaran oitura zar ta on guztiak berpiztu, geuria dan jakintza (kultura) dana zabaltzea aleginau.

Bear-bearrekua izan dogu "Pizkundia" dango bazkun bat, eta bear izan au betaduten etorri dan ezkeron, pozik be pozik egoteko da. Benetan geure erria maite danenik eztot uste geratuko danik, bazkidetu barik "Pizkundia"-ra, ba ondasun asko ekarriko dautsez gure erri maite auzeri bazkun orrek.

Aor ba zegaitika pozik, egoteko, ba, Jaungoikoari eskerrak urte barri au ederto asten yaku.

IDAZTI BARRIA

"Euzkerea"-k aginduta artu dogu auxe: "Método gradual para aprender el Euzkera" (Primer grado). (Tercera edición, corregida y aumentada) Euzkeltzale-Bazkunarena da, ta ikasgai onuratsuak benetan dakoz. Danontzat da ona, bai euskeldunentzat, ondo idazten ta itz egiten ikasteko nderakadak kenduagaz, eta euskel ikasleentzat, bardin euskera ikasi dayen. Zoriontzak ba "Euzkerea"-koari ain idazti onuratsua ateratea gaitik.

"KIRIKIÑO" (G. B.)-REN ALDE

Euskereak eta euskel-idazleak ainbat zor dautsogun irakasle maitea il zala, laster da berta, ta ondo izango leiteke idazle ta euskaltzale danok batutia Mañari'n igande batan, jaupa (meza) bat aginduaz, bere illoba ikertu, eta otoitz egiteko egun orretan bertan.

Ia Durango'ko "Kardantxillo", "Amagoya" ta or inguruetako idazleak. Zurok ondo zeinkiez gauzok, eta deitu danori zein egunetarako, aldogunik joan barik eztot uste geratuko garenik eta.

Au da Lexona'ko "Bestea" adiskideari erantzunagaz batera nik uste dodana egin leiela orain beste batzuk dozue itza.

TROKATIKO.

ZUMARRAGA'TIK

EUSKERAZKO LANAK

Izen onekin agertu zan, eta X baten aapian bere ixen abixenak gordeta, lengo astian lantxo bat izparringi ontan.

X adiskide maitia azaltzen nazu aztuta banengo lez Euskel liburuekin. ¡¡ez adiskide ez, ni ez nabil beste batzuk bezela eguzkia nora zapiak ara, ez; lengo tokian nago, eta agindu...!!

Aita Lezo'n azkenengo lana oso ederra da, eta uste degu guk ere iñun biar baca Euskо-sendietan bear dala. Eiza-iztia. edo abere ta piztiak, umetxuak eta aunditxoak gogoz irakurri biar genduke, ¡¡aiñ xamur eta gozo idaztiak daude gañera...!!

Bialdu bada onera 30 bat nere izenian, la lenago bere, Nere Laguna, liburua gorraldu genduan lez oraiñ bere Abere eta Piztiak goraldu eta salduko ditugu, pozik eso pozik, beren egilliak liburu ori idatzi duan bezin pozik.

Zorionak bertatik bere egilliari, gure lagun maite dan Aita Lezo'ri, ¿noiz datorbera onuntz...?

Legazpi aldian Zar-zale izango degu saltzalle, Urretxuan Erbindura eta Ollasloia, eta emen berriz neu, betikua. Ia ba, X, gertu nago zabaltzeko, eta oraiñ zure gaiñ bialtzia. Agur.

Liburuak salgai. Zumarraga'n jarriko ditugu oraindik aurrera saltzen Eusko liburuak, Urdangarin't. Joseba jaunaren etxian; ezaguna bera, urian dan dendarik ederrena dalako.

Bertan daude, Santa Kurutz, liburua Orixe'rena, ¿ezagutzen al dezu...? erosi eizu bada, etzaizu damutuko. Euskal-egutegiak, bai "Argia"-renak, eta bai Lopez Ixaka gure lagunarenak, baña danak bikañ egiñak.

¿Ez al dezu zure sukaldean xinxillik ormatik Eusko-egutegi bat...? Zuaz Urdangarin't. Joseba'ren etxera eta eraman zazu, bera egunero irakurri zazu, eta euskeraz bapo ikasiko dezu.

Eusko-sukalderik ezluke bear bere ormatik xinxillik ez duala Euskel-egutegirik Ia ba, badakizu nun dauden, eta erosi.

ALTZETA.

LEKEITIO

Aurreko idazkiyan iragarri neban lez, egin zan jai ederra ill onen 12'an "Gora Buru" antzokiyan, batuko zan diruagaz geitu al izateko "Reina de los Angeles"-en ito ziran gixonen sendiyentzat edegita daukon arpidia Bizkaiko Aldundijaren aurrezkikutxak. Antzoki polita bete-bete egon zan notiñez jaiya asi orduko. Lanian zeindu ziran neskatillak asko dira, eta euron izenen erreskadia bakarrik naiko izango litzakelako neure idazki au beteteko, soil-soil esango dot danen artian etzala bat izan bestia baño obetuago egon zanik, danak ertilarien mallaraño eldu ziran ta, asi María Labakotik eta beste Maria danakaño. Onen izena esan biarra dot antzeslarijen dekanua dalako.

Abestijak be ondo baño obeto, eta augaitik ikusliak txaluakaz saritu be euren lana

Ija 1.800 laurlekoraño batu dau Miren-Alabaen batzordiak jai onegaz. Naikua gero. Zorijonak, ba, beorreri, jakin dabelako biar dan eran atonduten lana, gatxa izanarren.

✤ ✤ ✤

Arrija bota eta beste lanak egin da gero ederto geratu da D. Paskual de Abaroa'ren bide zabala. Dirua be eralgiko eban ederto geure udalak baña, onetan lez, biar izanetan danian ondo eralgita dago. Orain bide onek eztau biar karenatia, baña eta orduan lauago eta dotoriago geratuko da

✤ ✤ ✤

Negu onetan itxaso asarratuak askotan dakusguz. Lenago be ikusi oi doguz, baña ez uiñ ain bizi eta bitzdunakaz. Aituak diñue ori dala kairako urbide edo kanala ondartzakaz itsututa dagolako, eta dragau biarrian aurkitzen dala. Elitzakijo, ba, Diputaziñoko dragien ikertalditxua txarto etorriko.

✤ ✤ ✤

Eskas baña papardua be aste onetan ikus dogu. Besigua urri baño urrijago. ¡Zenbat geratu biar ete gara aurten bertoko besigua dastatu barik!

✤ ✤ ✤

Plazako azokan lanian diardue, udalaren agindiuz, lau saltoki barri egiteko. Izango al dira barru aldetik txairuago ataz jagiten dagozan orma itxijak baño.

Bartzelonan dago Ordorika't. Nekane anderañua; baita Erce't. Pauliñe. Uri bertatik eldu da, ogei egun inguru egin da, Garabilla't Kaisere neskatillia.

BETI BAT.

DIMA

BALTZOLA'KO AITZ-ZULO"-RI

Adiskide maitia EUZKADI izpar ingo onetan argitaldu den argazki eta *Vista parcial del pueblecillo de Dima*'tzaz diñozune sustarretik eskua ezarri biarrekua da, baña tamalez nik ezingo dot, ez daki dalako. bada argazki ori ikusi nebanian geure izparringi barru barrukuan miñ benetan artu neuen eta esan be bai neure kolkorako ¡Demonamue! ¿Argazkite orrek ete daki erri au ze ospatzua dan? bada erri onen edestia aundia da nilako gitxijakiñentzat, baña Baltzolako Aitz-zulok diñozenak eta geiago ba dago zer edestu burdin olak zortzi eta errotak zeñek banatu asko dira ta nik eziñ neikez eta orrez gañera ursaltu edo tximist argi-olak zeinbat ditu eta zein erritan gizendu dira txal bei edo idi onena; zeinbat errik erdien artzen daben; amalauk daukie arrautze koskolak bere gorriñgoa eukiten deuen lez, eta amalau erri ok edaten dabe Dimako mendik jario oidaben ura eta edaten jarraitu arrik ez dira legortuten amengo iturriak.

Baña tamalgarria jazoten da erri onetan ura dala ta ez dala badakizu irakurle zelan etorri zan errire agindu bat ura ipiñi biarko zala jate-etxe, ardotegi eta saltoki guztietan eta Udala edo Ayuntamentue dagola biartu ta ura erri ekarteko eta alan otu yaken ura ekartia Olazabal bideko presatik plaza buruko txopoetara. An zulatu oxin bat egin eta andik ura emon erriko biztanlieri, eta kaiganetan asi eta pidaderarte dagozan etxiari nok edo nundik ekarriko dautsezue ba Dime larreti bera etorriko ete yake, eta orretarako irazi (gastau) biar izan dira ainbeste milla lau erleko emetik tubo zarrak, ortik galdara zarrak urren izenean eta urik ez errien. Onango kirtenkeririk ikusteko be baña geure aitaitak esaten deu danentzat tratu txarrik ez dula izaten iñoz be eta Pedro Saisaku izan balitz erriko agintari beetzala yazoko onangorik eta sekretario larroskiñ.

AMESTI.

AZPEITI'TIK

IL URTE BETETZE BAT

Illaren 15'ean txadon nagusian Unanue't Nikola'rena izan zan G. B. Bere sendiminduari nere agur samiña ta irakorle, il dakoaren gogomene nalde "Pater Noster" bat.

ERIOTZA

Eleizako azken laguntzez sendoturik Jaunaren Eskubetan utzi zuban bere gogopena Peña't. Mirena Joseba gizon onak G. B. Irakorle, bere gogopenaren alde "Pater Noster" bat.

JJAIOTZA

Aizpuru't. Iñakin emazte agurgarriak alabatxu eder bat argitaratu du ama alabatxuak ondo daude. Zorionak.

IOSUS'EN BIOTZAREN SERBITZARIAK

Erri onetan bai dago Lekamin etxe bat Errien Ama laztanak bere babesian bizi dirana. Erri ontan diranetik, erri danak daki, zenbat lan egin duten errien aurrian Beretzat ez dago dunik ta ez dunik beretzat danak dira berdiñak nundik duten deia uso txuri bezela arin an dira beretzat ez da gaitzak arin edo aundirik danak dira berdiñak, berak ez diote gaitzari begiratzen ez da ere beren illekoa ordaintzen dutenеko edo ez, baizik gaitzaren pean da goan gaxua Jesusen anaia dala dakielako ta Jesusen izenian laguntzen die gaxoari. Ama on baten biotz samurraz pozkidaz beterik utziaz gaxoa bai gorputzaren nola animaren aldetik. Au ondo ikusi aldi gutxi onunztik gaitz txit segakor bat egon dan etxe batian. Gaxuen ama on abek egite onegaz erriaren aldetik esker on bat ongi irabazia dute. Eranzu era au Erri udal jaunak erri danen izenian ondoena bete lezake. Betia izan dedilla ba.

TXERRI ILKINTZA

Illaren 15'ean bi il zituzten 204 ta 184 kilokuak. ¡Zarra! ¡Zer lunkeinke janak, e? On deikela.

✤ ✤ ✤

Peruk.—Mari, amarioak zer dira?

Marik.—Amorioko ardoaren ozpiña.

Peruk.—Urte askoan alkarrekin ezkontzlegea beteaz egon diranak zer dira?

Marik.—Bi deunen toki dun bat.

URREKO ZOROA.

ARRASATE (MONDRAGON)

EUSKEL IZENA

Gure lagun zintzo Bengoa't. Yon eta Eraña't. Bedite'ren sendia laugarren seme ede rbatekin geitua izan dute eta Yon euskel izena jarri dotsie.

Aita ama bizi izan dira Kerexeta't. Paul "Udalaitz" lengo euskelidazlea ta bere emaztea.

SOZIALISTAK BATZARRA

Iragarrita euken lez egin zuten Carrillo eta Toyos'ek, bata bestia ondo gorde, eta asko goratu zuten eta azkenengo onek (Toyos'ek), bere burua ez gutxien, bañan urrengo egunian zabaldu eben Eusko-langilliak erri guztian orri bat orreik txorixok ze regiten duten erakusten ta gu zergatik maite gaituen.

UDALA MENDI.

ERANDIO'TIK

Asarre andia dago erri onetan Baratz Deuna itxi edo sarratu egiten dabiela ta Ba oker andia yatorko Erandio goialde guzti oneri, ta diñue itxiteko akikulu ori dala etzeran batzuk badekoz ezpadekoz ur egi ori baño ezpada ezta akikulu andirik agintariontzat, zegati ze, badira beste erri batzuk onek baño ur etzeak deukezan Baratz Deunak. Ba kalte andiak yatorkz, goialde ontako euzotegiari ori itxiteagaz, zegaiti ze, Laurotako ta Goyerri auzotegotatik Deun Miren txadonara eldu orduko, esaleike ze, naikotu ordu dala ibillirik geiyago barik bere, ta gero, emetik Deun Agustiñen Baratz Deunera egongo dire mille ta bosteun naurri inguru aldatz gora gañera, ta... txadonara eldu orduko, bide txarrak. ¡bai benetan bide txarrak! bai ba, ipiñi ezik... ozta bere egongo dire, ¿eta zelan ipiñi? ez ba, bideak ipinten baño txindia zetan emon geyago egongo zan ta bearrago diren lanetan, ba olan bada ondo dago. Nik eztakit gizonak asmu ori edo erabagi ori nondik artu leiken, jakiñik erri onek ain urriñ auzotegiak deukozana Orixe bakarrik asmauko baleuke agintariok, uste dot zabalduko leukela gizonok beiñipein barri bat urrago egiñarte. Jakitun nago zelan emengo gizonen batzuk ori atzera zabaltzeko aleginduten asi dirana, ta poztuten naz, zagati ze alan da obeto beta.

Asuko Eusko-langillen artezkariak izparringi onen bitartez dei eiten deutsia, bertoko bazkide ta orretarako zaletasune deuk guztiari, illonen 19 ta gabeko 8'retarik eta amarratara izango dirala Deun Agate'n abestiak ikasteko orduak.

Baita Apurtuarteko mutillak be oso zintzo idabiz egun orretarako ikasten. Badekot entzutea zelan abesti politan diran.

Iya, ba, mutillak, ez itzi aiztuten geure atxineko ekanduari.

TXORI.

ANDOAIN

—Lotsatu egin biar genduke gure erri maite onetan gertatu dala esatiak baña, gertatu dan ezkeroz aitortu egin biar. Adolfo Deruque ta Jose Otamendik, zurgin ola txiki bat zeukaten elkarrekin eta ez dakigu zergatik eta nola, biyak asarretu ta arkitzen omen ziran egun batzuek aurretik. Ostiralian izan biar zuten beren gauzen erabakitzia, eta egun ontan beti bezela goizian lanera juan da Otamendik Deruque'ri egur batekin buru ezurra ausiziyon; beriala osagillia deiturik, eta onek ikusirik zauri aundiya zuela, Donostiyara eraman zuten, banan alperrik izandu zan, etxera ekarri ta beriala il zan. Erri guztiya saminduta gelditu zan mutill zirtzill orrek egin erazi duan eriyotzagatik. Obiratze ta elizkizunetan oste askok lagundu ziyon Goyan bego.

—Asteartian uste gabeko eriotz batek eraman digu berriz Jauna'gana, Orbegozo Perderika'ren emazte Imanole, irurogei ta zortzi urterekin. Laguntzen diyegu bere senar ta semeaidi atsekabe onetan.

—Osakintza egin da arkitzen da Donostiyan, Oreja'ren osatetxian, Enetarriaga't Joseba. Ongi emen dago ta poztutzen gera

—Datorren igandian izango dute beren lenengo ezkon deya, Irazu't. Serjio ta Egibar't. Mirenek. Ordu onian izan dedilla bada.

—Bartzelonara juan zaigu erakusketak ikustera gure jaupari gazte eta euskal zale Aranguren't. Jon jauna. Ondo ibilli.

BURUNTZA.

EIZA - IZTIA EDO ABERE TA PIZTIAK

Lezo'ko A. Agurgarria'rena Euskera irakasten dan ikastoletasako irakurgai polita. Bi jaurleko'ren ordez. Amar ale baño geitago eskatu ezketiño, nerkeago dira.

EUZKADI'ren banakolean salgei.

MANARI

YUAN-ETORRI

—Artia Arratia'ra yuan zan Azkunaga't Karla.

—Eibar'era Agirre't. Bonipagi.

—Bilbo'ra alditxu baterako Ortuoste't Yon.

—Ibarrengelu'tik etorri zan Uriarte't. Bingen bere emaztiaz.

—Soraluze'tik Larrañaga't. Beniñ yaupariya.

—Bilbo'tik Mañarikua't. Estanis.

—Zeanuri'tik etorir za negun batzuetarako Egileor't. Koldobike neskatillia.

—Eibar'tik etorri ziran Zabarte'. Telespor eta Kapanaga't. Baleren.

—Dima'ra yuan ziran Sarobe't. Silbeste eta Domeka anaiyak.

ANDONI DEUNA

Goizeko zazpi ta erdiyetan emon zan meza abestua Kurutze-Santun.

Emendk, antxiñeko oituriari yarraituaz lagun asko yuan zan Urkiola'ra. Batzuk goizeko meza nagusirako ta beste batzuk arratsaldeko yaireko, Andoni-zalerik asko batu zanian goiyen. Eta egualdi ederraz egun ederra igarota pozik etxeratu zirian.

OTURANTZA

Igaro zan asteko eguen gabian, ur-saltu barriya egiten diarduen langille gaztiak Itza'ko eureen txabolan oturantza (banketia) egin eben.

Apari orretarako arito eder bat il eben: eta "Patxi Kabrera" erueniko ardau indartsuari zurrutada galantak egiñaz, okela ta enparau yatekuok sekuleko edertuen garbitu ei-zituezan.

Eta azkenez, mama gozua eranez, sekuleko "animaziñuan" sartuta, ango izkiliminiñ eta berba egin biarrak andiyak ei-zirian. Batak au, ta bestiak ori, Peru izena ebanari Yon, eta Yon izena ebanari Martiñ, nastiaren-nastiaz Babel'go Torria ei-zirudiyan... Baña tira, gauza guztiyetan bakia nagusi izan ei-zan eta gaitzerdi.

BASERRI-LANAK

Aste-onetako egualdi ederrakaz, baserriyetan lanik asko eginda. Orbel eta egur batze ta ekartiak aro onian egin dira; baita aldiyari yagokozan enparau solo biarrak be.

Arua dagonian ekiteko da.

MAÑARIKO.

ZEANURI

DEUN ANDONI

Gaur, barikuan, goiko elexan 6'an urtero lez txaunburu jaun onek piñita iru abadedun meza abestu izan da lagun asko eldurik elezkizun onetara gizonezkotan be San Antonio'ri bete ikusi dogu deboziño andie egon dala erri onetan alan ikusten da Urkiola'ra bederatzi urrunek egiten da oste andie izaten dala. Baita orain neguen biotzian egon arren be basetxeetatik yoaten da ainbat lagun Urkiolara.

GORA BERAK

Igaro da urtean il direnak erri onetan guztiz 29 auroetatik 4 txikiek Yaioak, 76 Ezkonduak ziur eztakit baña asko izan dira.

UME BAT ZERURA

Undurraga'ko irakasle Eliseo jaunari alabatxo yaioparri bat il yako. Geure tamal agurra sendi orreri.

EZKON DEYAK

Andra Mari elexan igandean deituak: Beobide't. Simon Orbetzukoa Apoita't. Isabel Undurraga'koagaz. Zorionak.

NASKALDIJA

Emen izan dira elizkizunera etorrita Altzibar anai osalariak da sendikoak.

Ubide'ko txaunburu Angoitia Simon jauna.

Andaluziera yoan da Zuluaga Aba pantzekatarra.

Laudio'tik etorri da Rekagorri abada jauna.

GOGO-IÑARKUNAK

Urtero lez goiko elexa nagosian egongo dira datorren ille 3'an asita edo lenengo tandea, gizonezkoentzat. Aita Murgoitio emollea izango da.

EZPATADANTZARI TXIKIAK

Oneik mutikook ie ikasi dabe, 8 urtetik 12 urterakoak gau guztietatik Udal-etxean gogor ekiten dautsie. Nortzuk diran ara. Goikoetxea't. Andoni, Arana't. Imanol, Ibargutxi't. Pantzezka, Manterola't. Gabirel, Emaldi't. Julen, Emaldi't. Koldobika, Urrutxurtu't. Josu, Sagarna't. Erramon.

Zein dan danetatik onena? danak bizkorrak ta zoliek. Baña zer bear ete dabe ezpatadantzari yantziek da ¡ikurriña! Ia ba zuzenduten ba da.

ERRIKO IZPAR TXIKIEK

Mutil txiki bi aurok Urkiaga'koak arrai-motz andibategaz etorri dira ona plazara. bai, pozik Udalak zerbait emoten dabela pisti gaizkiñakatik eta... Zelan atrapau dozue artazi lango piku da erpa zorrotzdun egazti atrapatzaleau? itandu dautsegu Ara: Zipri aretx erdikoari olloa il eutsen da aren ollo okelea zepoan ipiñi da bertara etorri da barriro da beronek be olloen bidea eruan dau. ¡Geyego ollorik eztau atrapauko orraitiño.

Alkiber auzunian Beobide't. Erramon 89 urteko gizonak, lengo egunian intxaur zugatza ipiñi eban da gero ondoan zigarro bat erre be bai biarra amaitu ondoren. Gazteentzako erakutsie ona.

Ipiñeburu'n urtero lez landara ipintea zan lengo egunian etzagun, da errentadore bakotxak landara bat ipinten dabe Santa Ageda inguruan edo. Baña ortarako ardaua be eroaten da, da baten batzuk txikiteko gauzak gogoratute edo la primera sin juntar" mutikoak eskola aurrean lez ibilli ei dira... entzune ,egie ezpada, parkatu.

EGURALDI

Oso ederra dago. "San Bizente otza, neguazen biotza" esakera dan lez. Baña udea dirudi on beñik bein.

BASERRITAR BAT.

AMANDARRO'RI

"Nik eztautsot iñori ezer aginduten" diñozu. —¡Ederto, ederto! Beraz, urrena EUZKADI'ra zerbait bialdu daizunean, zure fonetika aldatu egingo dot. Zuk ori egiten dozu zeure Agerkarian, eta emostazu beste oinbeste egiteko eskubidea.

Zuk ez deutsozu iñori ezer agintzen, eta barriro bere sartu egin zara nigaz *Ebangelio* itza parra-parra darabildala, ta *Goizpar* ez darabildala ta *Neskutz* berbeaz bere, tautik ez dodala esan. Zuk erakutsi ta agindu bear a Ideustazu zer erabili ta zer itzi?

"Ebangelioa" itz zatarra dala esan zenduen or oraintsu neri zirika. —Itzik ederrena da. Orixe da Ispiritu Santuak aizemandako eod ispiratutako tza; besteak oro, ondo itzulik izan da bere, ez dira itz ori baizen ederrak. Zuen arteko yakintsun batentzako itz itsusia da ori. ¡Leku, leku Yaungoikoa baiño andiagoko gizon orri! ez naz asiko Yaungoiko andi orregaz eztabaidan.

Neskutz itzaz ez dodala tautik esan. —Zetako asi zarataka? EUZKADI'n itz au darabilenari, itzi egiten deutsot.

Goizpar pozik erabiliko neuke beste Sabin zaren itz asko lez, atsegin ba litxat. *Goizmeza* goizeko meza baldin ba da, *goizbarra* goizeko parra dirudi. EUZKADI'n itz au darabillenari, bertan izten deutsot, umorea galdu barik. Kepa esaten dauanari Kepa, Peru esaten dauanari Peru, Koxemanuel nai Joseba Imanol esaten dauanari, bardin. Zu al zaitut nagosi zer esan eta zer egin yakiteko? "Noberak bere ustiari eutsitia bidezkua deritxot", diñozu: Ederto siñiste ta ekandu onaen aurka ez ba da Beaz, itzi neri *Ebangelio* ta abar esaten.

Baiña, ¡gauza ikaragarrija! EUZKADI Karlatarre nalde! Ez, ez, zuzenaren alde Gurasobide'k esan eutson Atarrene'ri eskubide ebala beronen itzaldia gaitzesko luzea zalako edo laburra zalako edo Karla'ren alde yardun ebalako. Baiña ez Karlaren beraren aurka aoa zabaltzeko. Modu onean erantzun eutson Gurasobide'k, eta EUZKADI'n egiñ izatea ez da pekatu: bertan aixukatu eban besteak eta. Nik zuzena uste nebanaren alde egin neban. Ez, gaiztoz beintzat. Barkakizun naz.

EUZKADI etxea bat da ta ni beste bat EUZKADI'n eta Amandarro'renean adiskideak bardin dodaz. EUZKADI etxetik bein baño geiagotan adiarazirik naukoa emen Euskaltzaindiari yarrai bear gatzaizkola. Atzo orain-urrena entzun neban, zure adiskide Agerre'ren aurrean. Itaundu egiozu.

Zuk ez deutsozu iñori ezer agintzen, baiño niri ta "Argia"-ren artezkariari bai akar egiñ zure menpeko bai giñan ("Euzkerea"-IV-83) Koziñeru ona edo zara. Sute askotan edo bazi askotan sartzen dozuz atzamarrak.

Yaungoiko bat dot nik, Eliza bat, Aita Santu bat, eta naikoa dodaz. Zu lako Aita Santurik ez dot onartzen; zu lako koziñerurik bere ez. Or konpon zeure etxean.

ORIXE.

"JAUNGOIKO-ZALE"

BILLA-BIDEA

Beste urte bat, *Gama*.

Gabon sariak Seminario barrirako, *Mateo, Gazteizko Gotzañak*.

Etxeko gora-berak.

Urte-zar eta Urte-barri egunak dirala, *P. Angelo Jauregi*.

Katoliko izparrak, *Gama*.

Errietako izparrak, *X*.

Irudiak

Gazteiz'ko Seminario barria ipar aldetik

Gazteiz'ko Seminario barria egoi aldetik

Mendexa: Eleizalde auzoa.

CEMENTO PORTLAND

"ZIURRENA, S. A."

(EL MAS SEGURO)

Propiedad de la Sdad marca "Cangrejo"

FUEROS, 2. :-: TELEFONO. 12.258

AGENCIA FUNERARIA DE LOS HIJOS DE JOSE BARO

✝

LA HERMANA

Aurora de la Eucaristía de la Rica y Gandarias

(Religiosa Adoratriz)

(Q. E. P. D.)

Fal'ció en Granada el día 13 de enero de 1930

Habiendo recibido los Santos Sacramentos y la B. A. de Su Santidad.

LA COMUNIDAD DE RELIGIOSAS ADORATRICES; EL PADRE DE LA FINADA, D. FRANCO DE LA RICA; HERMANOS, D. JOSE RAMON Y D. PAULINO; HERMANAS POLITICAS, DOÑA EUGENIA GRIJALBA Y DOÑA ANGELES AJURIA; TIOS, TIOS POLITICOS, SOBRINOS, PRIMOS Y DEMAS PARIENTES

SUPLICAN a sus amigos se sirvan encomendarla a Dios en sus oraciones y asistir a los funerales que, en sufragio del alma de la finada, se celebrarán en la iglesia parroquial de los Santos Juanes mañana, LUNES 20 de los corrientes, a las NUEVE de la mañana, por lo que les quedarán sumamente agradecidos.

El duelo se recibe y despide en la iglesia.

Temas Vascos

DIVAGACIONES GRAMATICALES

¿Es lo mismo decir *dautsat* que *dautsot*, *eutsan* que *eutson*, *diñotsa* que *diñotso*, *deritsazu* que *deritsozu*, y otras semejantes? Es decir, ¿se puede emplear indistintamente *tsa* o *tso* como receptivo indirecto de tercera persona en la conjugación transitiva vizcaína?

Lo cierto es que unos vizcaínos dicen siempre *dautsat* (basta con un ejemplo) y otros *dautsot* y algunos indistintamente una y otra forma verbal para significar lo mismo *yo se lo tengo* (a él), por lo que, de hecho, *tsa* y *tso* resultan sinónimos.

Pero gramaticalmente, a mi juicio, no lo son, ni *dautsat* y *dautsot* tampoco. La *a* de *tsa* corresponde lógicamente al receptivo de tercera persona, puesto que de suyo expresa el pronombre de tercera persona, *él* o el demostrativo de tercer grado, *aquél*. Pero, ¿cómo y en virtud de qué la *o* de *tso* representa a la tercera persona?

Ni podemos dejarlo a la casualidad ni al simple uso, cuando hay alguna razón que lo explique, y en este caso la hay y, a mi juicio, lo explica satisfactoriamente. Esa *o* es permutación frecuentísima de *au* que aquí expresa el demostrativo de primer grado (*este, esta, esto*, cosa o persona presente o próxima), distinto de *a* demostrativo de tercer grado (*él* o *aquél*, cosa o persona lejana o no presente). Por consiguiente, *dautsat* y *dautsot* no expresan exactamente la misma idea, no son rigurosamente sinónimos. *Dautsot* significa justamente *yo se lo tengo* (a éste) y *dautsat yo se lo tengo* (a él o aquél). Esta frase: *etxea emon dautsot Kepari* estaría mal dicha (gramaticalmente) si Kepa no estuviera presente, y en presencia de Kepa estaría mal dicha la frase *etxea emon dautsat Kepari*.

Hubo un tiempo, seguramente, en que se distinguió perfectamente la significación de *tsa* y *tso*, pero la desidia, la incuria, el abandono en que nuestro pueblo tuvo a su lengua, y principalmente la falta de gramática, han hecho desaparecer la diferencia de significado de ambos receptivos, cristalizando en unas zonas en *tso* y en otras en *tsa* con el mismo significado de *á él*.

Si gramaticalmente *tso* y *tsa* expresan el primero y el tercer grado, respectivamente, del demostrativo, *éste, ése aquél*, parece lógico suponer que debiera haber, y que acaso en algún tiempo hubiera habido, algo semejante para expresar el demostrativo de segundo grado *a ése*. Sabido es que *ori* (ése) no es otra cosa que *aui*, convertido el diptongo *au* en *o* e intercalada una *r* epentética. El algo semejante a *tso* y *tsa* pudo ser *tsoi* formando *dautsoit* para significar *yo se lo tengo* (a ése). En consecuencia, para expresar *yo se lo tengo* (a éste) se emplearía *dautsot*, (a ése) *dautsoit* (a él o aquél) *dautsat*.

No he encontrado, sin embargo, hecho alguno en que apoyar esta suposición, y posible es que nunca hubiera existido, aunque tampoco puede negarse su posible existencia, pues cosa sabida es que han desaparecido totalmente y sin dejar vestigio alguno tiempos enteros de la conjugación vasca.

Las lenguas evolucionan y el euskera ha evolucionado también. Como han desaparecido tiempos de su conjugación, también ha recibido otros nuevos. La conjugación perifrásica es, muy probablemente, una adición a la conjugación sintética hecha en la época de la dominación romana y por influencias del latín en las relaciones, y aun en la convivencia, en algunas regiones vascas, de los vascos y romanos.

El euskera ha de evolucionar aún si ha de vivir, como evolucionan las demás lengua, y han de crearse palabras, frases y giros nuevos que expresen ideas y cosas nuevas, y con más exactitud y justeza, con más energía o suavidad, con más pulcritud y delicadeza, las antiguas. Y esto supuesto, ¿por qué no admitir para la futura gramática vasca (digo futura gramática porque en el uso actual sería una complicación innecesaria en el desarrollo del euskera) los tres grados del demostrativo *éste, ése, aquél* en la conjugación vasca? Sería una precisión mayor en la designación del receptivo indirecto y, por lo tanto, una perfección, una exquisitez más de la lengua vasca.

En este caso la conjugación habría de desarrollarse así:

... ... a éste; lo, los
dautsot, dautsodaz,
... ...
... ...
dautsoe, dautsoez
... ... a ese; lo, los
dautsoit, dautsoidaz
... ...
... ...
dautsoie, dautsoiez
... ... a et o aquél; lo, los
dautsat, dautsadaz
dautsae, dautsaez (dautse, dautsez)
... ... a estos; lo, los
... ...
... ...
dautsoet, dautsoedaz
... ...
... ...
dautsoez, dautsoeez
... ... a ésos; lo, los
dautsoiet, dautsoiedaz
... ...
... ...
dautsoiee, dautsoieez
... ...a éllos o aquéllos; lo, los
dautsaet, dautsaedaz (dautset, dautsedaz)
... ...
... ...
dautsaee, dautsaeez (dautsie, dautsiez)

EUSKALDUN BARRI BAT.

NOTAS JUDICIALES

Sentencias condenatorias

El Tribunal de la sección primera ha dictado sentencia en la causa vista el 11, por dos delitos de estafa, contra Manuel Lesaca Barinaga. Se le condena, por uno de los delitos, a la pena de un año de reclusión, y por el otro a la pena de cuatro meses de reclusión, con las consiguientes indemnizaciones.

También se ha dictado sentencia en la causa vista el mismo día 11, en la sección segunda, contra el procesado Estanislao Ruiz, por un delito de atentado.

Por virtud de ella se le condena a la pena de tres meses de prisión.